FONETIKA

- Artikulatorioa: hotsak nola sortzen diren azaltzen du, hizkuntzalaritzaren oinarria ahozkotasuna denez oso garrantzitsua da faktore hau aztertzea.
  - Kontsonanteak
    - aire-fluxua: biriketan aldi berean arnasteko eta hitz egiteko behar den airea sartu beharra dago. Birikek kabida gehiago izan dezaten diafragma jaitsi eta sahietsak erlaxatzen dira, diafragma igo eta tentsatzean airea ateratzen da eta hotsak sortzen dira.
      - laringea: ehun kartilaginosoa da non ahots-kordak dauden
      - ahots-kordak: mugimendua duten bi gihar txiki dira
        - soinu ahoskabeak: ahots-kordak aldenduta
        - soinu ahostunak: ahots-kordak gertu (itxatsi gabe) aireak kaporatzean toki gutxiago du eta hauek dardara egiten dute, gogor jarriz
        - glotisa: ahotsa-korden arteko tartea
    - ozentasuna: ahots-kordak elkarrengandik banatuta egotean ahoskabetasuna sortzen da
    - ahoskuneak
      - zer?
        - aktiboa: mihia eta beheko ezpaina
        - pasiboa: hortzak, goiko ezpaina, hobi-gaina, ahosabai gogorra, ahosabai biguna (sudurkarietan ireki) eta aho-gingila
      - non?
        - biezpainkaria:
        - ezpain horzkaria:
        - hortz-artekoa:
        - hortz-hobikaria (horzkaria):
        - hobikaria:
        - hobi-atzekoa:
        - iraulia:
        - sabaiaurrekoa / hobikari-sabaikaria:
        - sabaikaria:
        - belarra:
        - ubularra:
        - faringaria:
        - glotala:
        
        *

      - nola?
        - herskaria: pasabidea une batez itxi egiten zaio aireari
        - frikaria: ez da pasabidea ixten, toki gutxi utzi baizik
        - afrikatua: herskaria + frikaria
        - hurbilkaria: hurbildu baina toki gutxi utziz
        - albokaria: goian erdian mihiak airea blokeatu, behean ez
        - dardarkaria: aktiboa pasiboaren kontra
        - sudurkaria: ahosabai biguna ireki (jaitsi)

- Bokalak
  - altuerako ardatza:
    - goikoa / itxia:
    - arteakoa:
    - behekoa / irekia:
  - atzekotasuneko ardatza:
    - aurrekoa:
    - erdikoa:
    - atzekoa:
  - biribiltasuba:
    - biribila:
    - ez-biribila:
  - tentsoa / laxoa:
    - tentsoa:
    - laxoa:
  - diptongoak:
    - semi-bokala:
    - semi-kontsonantea:
- Akustikoa: artikulatzaileek sortutako aire-uhinen ezaugarrien ikerketa da. Bokal eta kontsonanteen arteko aldeak eta trantsizioak ikertzen ditu. Soinuek aireratzean uhinak sortzen dituzte eta biriketatik datorren airea sudurretik nahiz ahotik pasatzen da uhin sinpleak sortuz. Uhin sinplea + uhin sinplea = uhin konplexua
  - indarra / anplitudea (dB): geldiunetik zenbat aldentzen den uhina
  - maiztasuna / frekuentzia (Hz):
    - ahots-korden bibrazioa motela = soinu grabea
    - ahots-korden bibrazioa azkarra = soinu agudoa
    - tonua entonazioaren arabera: silaba tonikoak, galderak, hiru puntuak...
  - periodoa: uhin sinple bakoitza armoniko bat da
  - grafiko motak: ezaugarri akustikoen irudikapena
    - oszilograma: x ardatzean denbora, y ardatzean anplitudea
    - espektograma: ahots-soinuen uhin sinple indartsuenak denboran zehar irudikatzen ditu, formakinak sortuz. Hauen maiztasunek tinbrea osatzen dute (x, denbora // y, maiztasuna). Uhin sinple hauen anplitudea zenbat eta handiagoa izan, orduan eta beltzago agertuko dira formakinak, ahostasuna ere irudikatuz.
  - bokalak:
    - lehen formakina:
      - bokal irekia --- F1 handia --- espektograman goian
      - bokal itxia --- F1 txikia --- espektograman behean
    - bigarren formakina:
      - bokala aurrean --- F2 --- espektograman goian
      - bokala atzean --- F2 --- espektograman behean
    - hirugarren formakina:
      - ezpainak ez-biribil --- F3 --- espektograman goian
      - ezpainak biribil --- F3 --- espektograman behean
- Suprasegmentala
  - iraupena
  - intentsitatea
  - tonua: ahots-korden dardaren maiztasunaren aldaketa (oinarrizko uhina F0)
  - azentua
  - entonazioa

FONOLOGIA

- Kontzeptuak
  - Fonetika: soinu konkretuen ekoizpenaren ikerketa
  - Fonologia: hotsen arteko antolamendu kognitiboa (fonemak) ikerketa eta soinu konkretuen kategoria abstraktuen banaketa
  - Ezberdintasun kontrastiboa: bi hots elkartrukatuz haien artean desberdinak diren hitz eratzea
  - Alofonia: bi hots elkartrukatuz haien artean desberdinak ez diren hitzak eratzea, banaketa askea kontsideratzen da
  - Fonotaxia: fonemak agertzeko murriztapenak, silaben guneak. Euskaraz nahiz gazteleraz silabak edozein kontsonantez has daitezke, baina bigarren kontsonantea derrigor /l/ edo /r/ izan behar da. Silaba amaieran aldiz /n/, /l/, /r/ edo /s/ agertzen da normalean, bestela kultismotzat jotzen da.
  - Egitura silabikoa: silabek nukleoa dute, bokal bakarrez edo biz (diptongoa) osatua.
    - silabaren eraketa
      - hasiera: C + (C)
      - rima
        - nukleoa: V + (V)
        - koda: C +(C)
  - Sonoritatea: airea pasatzen uzteko ahoa zenbat irekitzen den
    - bokal irekia:
    - arteko bokala:
    - bokal itxia:
    - urkaria:
    - sudurkaria:
    - trabaria:
  - Alternantziak
    - asimilazio erregresiboa: segmentu batek hurrengoaren artikulazioa aurreratu eta honen ezaugarriak hartzen ditu
    - asimilazio progresiboa: segmentu batek hurrengoari artikulazioa atzeratu eta bere ezaugarriak ematen dizkio
    - disimilazioa: bi fonema berdinak edo antzekoak izatean eta elkarren segidan ahoskatu beharra dagoenean bien arteko banaketa argitzea da
    - epentesia: hitz edo morfema batean beharrezkoa ez den bokal edo kontsonantea sartzea
    - ahultzea: artikulazioaren erlajazioa
    - ezabatzea: artikulazioa hainbeste erlajatzen da galdu egiten dela
    - indartzea: erdi-kontsonanteen indartzea da, dialektoaren arabera (h)

MORFOLOGIA

- Kontzeptuak
  - morfologia: gramatikaren moduloa non hitzak sortu eta gordetzen diren
  - hitza: bi hutsuneren artean dauden letren kateaketak (morfemetan banatu)
    - lexikoa: objektu, kontzeptu, ezaugarri edo gertaerak adierazi
    - gramatikala: generoa, zenbakia, pertsona, denbora… adierazi
  - isolatasuna: etenak jarri ahal izatea aurretik edo atzetik
  - barne kohesioa: osagarriak ezin dira banandu
  - lekuzko mugikortasuna: gune sintaktiko desberdinetan ager daitezke

*Euskara

*Gaztelera

SINTAXIA

- Kontzeptuak
  - sintaxia: sintagmen eta esaldien mailako unitate nagusiagoak sortzeko egiten den hitzen konbinaketa da.
  - kategoria lexikala: objektuak, animaliak, pertsonak, kontzeptuak, gertaerak, egoerak, ezaugarriak… adierazten dituzte (izena, aditza…)
  - kategoria funtzionala: esanahi ez-lexikoa dute, kasua, denbora, pertsona, generoa… adierazten ditu
  - proiekzioa: kategorizazio gramatikala da ( I --- IS, A --- AS, Prep --- PrepS)

*Euskara

*Gaztelera

*Ingelesa

SEMANTIKA

- Kontzeptuak:
  - semantika: gramatikaren esanahiaren arloa
  - esanahi lexikoa: esanahiak adierazten ditu (izena, aditza, egoera…)
  - esanahi gramatikala: edozein kategoria ez lexiko
  - semantika lexikoa: esanahi lexikoa duten hitzen ikerketa
  - semantika konposizionala: esanahi gramatikalaren azalpena
  - pragmatika:esaldiaren zentzuaren araberako interpretazioak baldintzatzen du